

*Deba bizitzeko  
herririk onena izan dadin,  
urratsak emanaz*



#01

2025eko aurrekontuak,  
aho batez onartua, etorki-  
zuna eta debarren ongiza-  
tea ditu ardatz

—  
03

Aurrekontu parte-  
hartzailleak: 200.00  
euro debarren eskura

—  
06

Euskararen Plan Estrate-  
gikoa: non egon nahi dugu  
Deba, euskarari dagokio-  
nez, hemendik 10 urtera?

—  
08



*Alazne Txurruka*  
**DEBAKO ALKATEA**

**« Ilusioz eta konpromisoz,  
Debaren etorkizuna eraikitzen  
jarraituko dugu, herritarren  
ongizatea ardatz hartuta.»**

**I**lusio handiz ematen diot hasiera Debaberrri udal aldizkariaren ale berri honi. Debako alkate naizenetik kaleratzen den lehena izanik, zuengana zuzentzeko gogotsu heltzen diet datozen lerroei. Dagoeneko urte eta erdi ugari igaro da bide honi ekin genionetik, eta une ezin hobea iruditzen zait orain arte bizitakoaren balantzea zuekin partekatzeko eta, batez ere, Debako etorkizunarekin dugun konpromisoa berresteko.

Lehen urte hau lan handikoa izan da, baina debarrak erdigunean jarriko dituen kudeaketarako oinarriak ezartzeko balio izan digu. Zentzu horretan, gure lehenetasuna argia izan da beti: Deba etorkizunera begiratu-ko duen herria izatea, herritar oro-ren ongizatea bermatuz, inor atzean utzi gabe. Gure udalerrria hazten ikusteko ilusioak mugiarazten gaitu, gure nortasuna, gure ondare natural eta kulturala eta herri sentimendua galdu gabe.

Funtsezko hainbat proiektuei heldu diegu, alor desberdinetan, hala nola etxebizitza, mugikortasuna, berdintasuna, zaintza edota hizkuntza arloan, Euskara Planaren lanketarekin. Aldi berean, arreta berezia eskaini diogu gure ingurune naturalaren babesari, badakigulako garapenak iraunkorra izan behar duela eta inguratzen gaituen ondarea errespetatzea ezinbestekoa dela.

Hala ere, hilabete hauek ez dizkiogu kudeaketari soilik eskaini; ikasketa hilabeteak ere izan dira. Erronka eta oztopoekin egin dugu topo, baina Deba hobeago bat elkarrekin eraikitzeko ilusioari helduta egin diegu aurrerantz. Badakigu gobernatzeak erabaki zailak hartzea dakarrela, eta batzuetan, agian, ez dugula asmatuko, baina helburua beti izan dugu argi: Deba zein debarren alde lan egitea eta herrian bizi den pertsona bakoitzaren bizitza hobetzea.

Datozen hilabeteetan, gure udalerrria bizitzeko herri onena bilakatuko duten proiektuetan aurrera egiten jarraituko dugu. Asmo handiko ibilbide orria dugu, baita aurrera eramateko indar eta motibazio galanta ere. Eta garrantzitsuena, hori guztia, zuekin, debarrekin elkarlanean eraiki nahi dugu.

Izan gurekin Debako eraldaketaren parte. Deba guztiona da, guztiok maite dugu gure herria eta guztion artean egingo dugu posible Deba bizitzeko herri onena izatea.

Eskerrik asko bihotzez, zuen konfiantzagatik eta ilusio handiko proiektu honetan bidelagun izateagatik.

Este primer año ha sido un tiempo de trabajo intenso, en el que hemos tenido la oportunidad sentar las bases para una gestión que ponga a las personas en el centro. Sin embargo, estos meses no solo han sido un tiempo de gestión; han sido también un tiempo de aprendizaje. Nos hemos encontrado con desafíos y obstáculos, y es que sabemos que gobernar significa tomar decisiones difíciles, pero siempre lo hemos hecho con el objetivo claro de servir a nuestro municipio y mejorar la vida de cada persona que lo habita.

Nuestra prioridad ha sido siempre clara: hacer de Deba un municipio con futuro, que garantice el bienestar de todas y todos, sin dejar a nadie atrás. Para ello hemos abordado proyectos clave en diferentes ámbitos, dedicando a su vez especial atención a la protección de nuestro entorno natural. Y en los próximos meses, seguiremos avanzando en proyectos que transformarán positivamente nuestro municipio. Os animo a seguir siendo parte activa de esta transformación y que nos acompañéis en este ilusionante proyecto, para, entre todas y todos, hacer de Deba el mejor municipio para vivir.

# AURREKONTUAK 2025

## 2025erako aurrekontuak: Ongizatea, kalitatea eta etorkizuna Deba zein debarrentzat

Joan den abenduko ohiko osoko bilkuran aho batez onartu zituen Debako Udalak 2025erako aurrekontuak, udalbatza osatzen duten hiru alderdien arteko akordio batekin, lankidetzaren eta elkarrizketarako borondatearen emaitza gisa.

Hala, 2025ean 10.469.853 euroko aurrekontua izango du Debak, Itziar eta Deba Musikaleko diru-partidak barne. Aurrekontuaren helburu nagusia da Debaren etorkizuna herritarrentzako aukerak dituen udalerrri dinamiko gisa eraikitzea, egungo zein etorkizuneko erronka eta beharretara egokitutako hazkunde-proiektzioarekin.

Horretarako, 2025erako onartutako aurrekontuek hainbat inbertsio estrategiko aurreikusten dituzte, debarren bizi-kalitatea hobetzeko, tokiko zerbitzu publiko eta azpiegituren kalitatea bermatzeko, irisgarritasuna hobetzeko eta Debako garapen urbanistikoa indartzeko asmoz.

El pleno ordinario del pasado mes de diciembre el Ayuntamiento de Deba aprobó por unanimidad los presupuestos para 2025 con un acuerdo entre los tres partidos que conforman la corporación municipal, fruto de un ejercicio de diálogo y cooperación.

De esta forma, Deba contará en 2025 con un presupuesto de 10.469.853 euros, incluyendo las partidas de Itziar y Deba Musical. El objetivo principal del presupuesto es construir el futuro de Deba como un municipio con oportunidades para su ciudadanía, dinámico y con una proyección de crecimiento adaptado a los retos y a las necesidades actuales y futuras.



### 2025eko lan ardatzak Ejes de acción para 2025



**Debarren bizi kalitatea hobetzea**  
*Mejorar la calidad de vida de las y los debarras*



**Debako zaintza sarea definitu, sortu eta indartzea**  
*Definir, crear y fomentar la red de cuidado de Deba*




**Kalitatezko zerbitzu publikoak eta azpiegiturak bermatzea**  
*Garantizar unos servicios públicos y unas infraestructuras de calidad.*



**Debako garapen urbanistikoa bultzatzea**  
*Promocionar el desarrollo urbanístico de Deba*


## Aurrekontua arloka / Presupuesto por partidas



Aurrekontuko partidarik esanguratsuen, 5.062.915 eurokoa, Antolakuntza arlora bideratuko da. Arlo horrek, batez ere, Udaleko langileen eta funtzionamendu gastuak estaltzen ditu, udal-zerbitzuen kudeaketa egokia ziurtatuz. Berdintasunak eta Gizarte Zerbitzuek, berriz, 751.475 euroko aurrekontua izango dute 2025ean, kolektibo kalteberen ongizate- eta arreta-politikak hobetzeko. Era berean, 1.898.661 euro bideratuko dira herritartasun sailera; honen baitan jasotzen dira, esate baterako, hezkuntza-, kultura- eta kirol-zerbitzuak. Azkenik, Lurraldetasun arlora bideratuko dira 2.453.940 euro, bereziki hirigintzako azpiegiturak eta zerbitzuak garatu eta hobetzeko, udalerraren hazkunde ordenatua, jasangarria eta irisgarria bermatzeko helburuarekin.

La partida más significativa del presupuesto, con 5.062.915€, está destinada al área de Organización, que cubre, sobre todo, los gastos de personal y gastos corrientes en bienes y servicios del Ayuntamiento, asegurando la correcta gestión de los servicios municipales. Igualdad y Servicios Sociales, por su parte, contará en 2025 con un presupuesto de 751.475€ con el objetivo de mejorar las políticas de bienestar y atención a colectivos vulnerables. Asimismo, 1.898.661€ se destinarán a Ciudadanía, donde se incluyen, entre otros, servicios educativos, culturales y deportivos para la población. Por último, el área de Territorio, con 2.453.940€, se orienta, especialmente, al desarrollo y mejora de las infraestructuras y servicios urbanísticos, asegurando un crecimiento ordenado, sostenible y accesible del municipio.


## Diru Sarrerak / Ingresos



**GUZTIRA / TOTAL: 10,4M€**

- Zuzeneko zergak | Impuestos directos
- Zeharkako zergak | Impuestos indirectos
- Tasak eta bestelako sarrerak | Tasas y otros ingresos
- Transferentzia arruntak | Transferencias corrientes
- Kapital transferentziak | Transferencias de capital

## Gastuak / Gastos



- Pertsonal gastuak: 3.766.616€
- Ondasun arruntak eta zerbitzuen erosketak / Gastos en bienes corrientes y servicios: 5.544.182€
- Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes: 735.039€
- Inbertsio errealak | Inversiones reales: 295.406€
- Finantza pasiboak | Finanzas pasivas: 128.250€

# Debaren eta debarren etorkizunerako

## funtsezko inbertsioak / Inversiones para el futuro de Deba

2025erako inbertsioak alor estrategiko desberdinak jasotzen ditu, hala nola Zaintza Ekosistema, adin-ekoentzako zaintza-eredu integral baten definitzioarekin, jasangarritasuna, energia-eraginkortasuna hobetzeko eta ingurumen-inpaktua murrizteko; eta hirigintzan, segurtasunean, irisgarritasunean eta tokiko azpiegiturretan inbertsioak eginez. Gainera, herritarren beharretara egokitutako garapen inklusiboa eta iraunkorra bermatuko duten ekimen kulturalak eta azterlan estrategikoak bultzatzen dira.

El presupuesto municipal para 2025 se centra en áreas clave como el Ecosistema de Cuidados, la sostenibilidad y urbanismo, con inversiones en seguridad, accesibilidad e infraestructuras locales. Además, se impulsan iniciativas culturales y estudios estratégicos que garantizarán un desarrollo inclusivo y sostenible, adaptado a las necesidades de la ciudadanía.

### 01

#### Zaintza Ekosistemaren definizioa

*Definición del Ecosistema de Cuidados*

### 02

#### Debako Etxebizitza plana

*Plan de Vivienda de Deba*

### 03

*Segurtasun barandilak Hondartza kalean eta Maxpe kalean  
Barandillas de seguridad en Hondartza kalea y Maxpe kalea*

### 04

*Energia efizientziarako ekintzak: eguzki plakak Luzaron, LED argiak herriko argiteria publikoan...*

*Acciones para la eficiencia energética: placas solares en Luzaro, luces LED en el alumbrado público...*

### 05

*Deba-Itziar enpresa parkeko Zaraten Mapa eta bibrazioen neurraketa  
Mapa de Ruidos y estudio de vibraciones en el parque empresarial Deba-Itziar*

### 06

*Arronamendira doan GR bidearen hobetzea  
Mejora del camino GR hacia Arronamendia*

### 07

*Debako Irisgarritasun Plana  
Plan de Accesibilidad de Deba*

### Next Generation funtsetatik eratorritako inbertsioak Inversiones provenientes de los fondos Next Generation EU

- Paseo Estaliaren konponketa
- Gudarien plaza oinezko egitea
- Kanaleko bidearen konponketa
- HABko inbertsioak
- Argiteriako aginte-koadroen aldaketa
- Adecuación del paseo cubierto
- Peatonalización de Gudarien plaza
- Rehabilitación del camino del antiguo canal
- Inversiones para el HAB
- Actualización de cuadros eléctricos



# Debako aurrekontu parte-hartzaileak

## Deba bizitzeko herririk onena izan dadin herritarrak entzun eta debarrei ahotsa emanez

*Debako Udalak aurrerapauso garrantzitsua eman du herritarrak udal erabakietan inplikatzeko eta horretarako, aurten lehen aldiz, aurrekontu parte-hartzaileen prozesua jarri du abian. Ekimen honen helburua da, hain zuzen, debarrei hitza emanez, herritarren beharrak ezagutu eta horiei erantzuna emanez, Deba bizitzeko herririk onena izan dadin urratsak ematen jarraitzea.*



### Parte-hartzea sustatzeko ekimena

Horretarako, Debako Udalak 2026-2027 urteetarako 200.000 euroko partida herritarren eskura jarri du, debarrek diru horrekin egingo lituzketen proiektuak proposatu eta hautatu ahal izateko. Era berean, Udalaren eta herritarren arteko arrakala murriztea ere bada helburua, Debako Udalaren eta herritarren arteko harremana gardenagoa, hurbilagoa eta kolaborati-boagoa eginez.

Aurrekontu parte-hartzaileen bitartez, beraz, debarrek proposamenak aurkezteaz gain, proposamenen lehenestean eta hautaketan parte hartuko dute, prozesu honen

bitartez 2026-2027 bitartean egiteko aukeratutako proiektuek beren kezka eta lehentasunak benetan islatuko dituztela bermatzeko.

Gainera, prozesua herrikoia eta gardena dela bermatzeko, herriko eragile eta udal teknikari desberdinez osatutako Berme batzordea eratu da, prozesua bere fase guztietan gainbegiratzeko. Horrez gain, gardentasunarekin lotuta, prozesuaren urratsak eta proiektuen aukeraketa publiko egingo dira eta proiektuak aurrekontuan txertatu ostean, jarraipena izango dute, hauen egoera 6 hilabetero eguneratuz.

El Ayuntamiento de Deba ha dado un paso importante hacia la implicación de la ciudadanía en las decisiones municipales con la puesta en marcha, por primera vez, de un proceso de presupuestos participativos cuyo objetivo es dar voz a las y los debarras y conocer y recoger las propuestas ciudadanas con el fin de darles respuesta y continuar avanzando en la construcción de Deba como el mejor municipio para vivir. Para ello el Ayuntamiento ha puesto en manos de la ciudadanía una partida total de 200.000 euros para los años 2026-2027 con el fin de que las y los debarras propongan qué hacer con ese dinero y puedan seleccionar los proyectos que crean oportunos.

## Nola parte hartu? / ¿Como participar?

01

### Aurrez-aurre Presencialmente:

- Otsailaren 3an Pleno aretoan 19:00etan**  
3 de febrero, 19:00 en el salón de plenos
- Otsailaren 8an, Foruen plazan 12:30-14:30**  
8 de febrero, 12:30-14:30, Plaza de los Fueros

02

### Paperean En papel:

**Bete orri honetan duzun galdetegia eta utzi Udalak horretarako ahalbidetutako buzoietan (\*)**  
Rellena el formulario que encontrarás a continuación y deposítalo en los buzones habilitados para ello (\*)

## Nolako izango da prozesua? / ¿Cómo será el proceso?



03

### Online:

QRan dagoen estekara jo eta bete galdetegia  
Mediante el código QR



(\*)

**Aldizkariaren azken orrian topatuko duzu zure proposamena paperean egiteko galdetegia. Hartu hitza! Zu entzuteko prest gaude!**

**En la última página de la revista encontrarás el cuestionario para realizar tu propuesta en papel. ¡Toma la palabra! ¡Estamos dispuestos a escucharte!**



# Euskararen plan estrategikoa

DEBARRI · euskara

*Abenduaren 15ean jendurrean aurkeztu zuen Debako Udalak 2024-2034 Euskararen Plan Estrategikoa. Plan hau, herriko gizarte, hezkuntza, kirol eta kultur eragile zein norbanakok ere landutakoa, epe luzerako proiektua da eta helburu du herrian zein herritarren artean euskararen erabilera eta zabalkundea sustatzen eta indartzen jarraitzea.*

**I**zan ere, azken 30 urteetan, udalerriko euskaldunen ehunekoaren balio orokorra egonkor mantendu den arren, beheranzko joera antzeman da lehen hizkuntzaren transmisioan zein etxeko erabilera eta kaleko euskararen erabilera ere. Hori dela eta, Plan honen bidez, datozen hamar urteetan Deban euskararen biziraupena eta zabalkundea bermatzeko hobekuntza-arloak eta beharrezko ekintzak identifikatu nahi ditu Udalak, euskararen erabilera udalerriko arlo eta eremu guztietan sustatzeko.

Hala, Euskararen Plan Estrategikoa atal desberdinetan dago banatuta eta hainbat esku-hartzeko arlo jorratzen ditu.

**Familia:**  
**Etxean euskararen transmisioa sustatzea:**

Planak garrantzi berezia ematen dio familiari, lehenengo gizarte- eta hizkuntza-unitate gisa. Etxean euskaraz hitz egitea bultzatu nahi du Planak, belaunaldien arteko transmisioa sustatuz, gurasoak sentsibilizatuz eta euskararen sustapenean inplikatur.

**Eskola/Hezkuntza:**  
**Euskara ikasgeletan eta eskola-bizitzan sustatzea:**

Hezkuntza-arloan, Planaren helburua da herriko bi ikastetxeetan euskaraz mintzatzea eta Debako ikasle guztiak, DBH amaitzerako, euskaldun aktiboak izatea. Horrela, ikastetxeak hizkuntza sustapen guneak bihurtuko dira. Era berean, beste helburu nagusietako bat da eskolan zein kalean euskararen erabilera % 70era igotzea.

**Aisialdia:**  
**Aisialdiko jardueretan euskararen erabilera handitzea**

Aisialdi-arloaren ardatz nagusia da euskarazko jolas-jarduerak sustatzea, bereziki gazteenei zuzenduta. Horretarako, aisialdirako espazio eta ekintza guztietan, euskaraz egitea sustatuko da.

**Kirola:**  
**Euskara kirol jarduera guztietan integratzea**

Kirol arloan, aisialdian bezala, udalerriko kirol ekitaldi eta jarduera guztietan euskaraz egitea da helburu nagusia. Tokiko lehiaketetatik hasita, taldeen





Partaidetza-prozesuan parte hartu zuten herritarrek aurkeztu zuten Euskara Plana abenduaren 15ean.



entrenamenduetaraino, planak ekintza desberdinak jasotzen ditu kirol modalitate guztietan euskara nagusitu dadin, entrenatzaileen prestakuntzan eta kirol araudietan eta baliabideetan euskara txertatzea barne.

#### **Kultura:**

#### ***Euskal kultura sustatzea eta euskaraz egiten dela bermatzea***

Kultura arloan, Udalak eta udalerriko kultur elkarteek antolatutako jarduera guztietan euskara nagusi izatea da Planaren helburua. Gainera, herriko jaietan

zein gainerako ekitaldietan ikusgarritasun handiagoa emango zaio euskal kultura zein musikari.

#### **Sentsibilizazioa:**

#### ***Euskararen garrantziaren kontzientzia indartzea***

Sentsibilizazio arloa funtsezkoa da herritarrek euskararen alde mobilizatzeko. Horrela, helburu nagusia da 16 eta 30 urte bitarteko artean euskararen erabilera % 70eraino handitzea eta adin tarte horretan ahaldundutako euskal hitzunen kopurua 20 puntu handitzea.

El pasado mes de diciembre el Ayuntamiento de Deba presentó su Plan Estratégico de Euskera 2024-2034, un proyecto a largo plazo cuyo objetivo es fortalecer el uso del euskera y seguir impulsando su uso y transmisión en la localidad.

El Plan, diseñado en colaboración con diferentes colectivos sociales, educativos, deportivos y culturales del municipio, así como por particulares, está organizado en distintos bloques temáticos, que abordan diferentes áreas de intervención, como la familia, la escuela o educación, el ocio, el deporte, la cultura y la sensibilización. Cada uno de estos bloques recoge objetivos específicos y acciones concretas que se implementarán en los próximos diez años para fomentar el uso del euskera entre los diferentes grupos de población.

**«Euskararen Plan Estrategikoarekin, euskara gure kultur-nortasunaren ardatza eta gizarte-kohesiorako motorra izaten jarraituko duela bermatu nahi dugu.»**



### Herriko mugikortasun eta garraio publikoa hobetuz

Debako Udalaren eskaera zuzenari erantzunez, Gipuzkoako Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketa Departamentuak hainbat hobekuntza egin ditu garraio publikoan, herritarren beharretara egokitzeko. Horien artean DB04 linea egokitu du (Mallabia>Deba>Ondarroa), goizeko 06:00etan espedizio bat gehituz, DB03 linearen (Lekeitio-Donostia) geralekua Hostalaren ingurura lekualdatu du, markesina berri bat jarriaz eta azkenik, DB05 linearen (Ondarroa-Zumaia) lehen espedizioen ordutegiak aurreratu ditu, inguruko herritar askok ikasketak egitera joateko edo Mendaroko ospitalera joateko Euskotreneko zerbitzuarekin konexioak erraztuz.

En respuesta a la solicitud directa del Ayuntamiento de Deba, el Departamento de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio de Gipuzkoa ha implementado varias mejoras en el transporte público durante 2024 para adaptarse a las necesidades de la ciudadanía: ha incluido una nueva expedición a las 06:00 en la línea DB04 (Mallabia>Deba>Ondarroa), ha reubicado la parada de la línea DB03 (Lekeitio-Donostia) en las inmediaciones del Hostal, con una nueva marquesina y ha adelantado los horarios de las primeras expediciones de la línea DB05 (Ondarroa-Zumaia).

### Aurrera doaz Debako Udaltzaingoen bulego berriak eraikitze lanak

Debako Udalak 358.193 euroko inbertsioa bideratu du Simon Berasaluze plazan kokatutako lokalaren berrikuntza lanetara, udaltzaingorentzat bulego eta espazio irisgarriak eta egungo beharretara egokituak sortzeko. Lokal berriak 150 m<sup>2</sup> izango ditu, hainbat espaziotan banatuta. Era berean, proiektuak Geoparkearentzako 99 m<sup>2</sup>-ko espazio berri bat ere aurreikusten du.

Proiektu hau 2023-2027 Legealdi Planaren baitan jasotako proiektu estrategikoa da eta zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko helburuari erantzuten dio, Udaltzaingoa arreta berezia jarriaz. Lanak lehen hiruhileko honetan amaituta izatea espero du Udalak.

Las obras de reacondicionamiento del local situado en la Plaza Simon Berasaluze contemplan la creación de unas modernas oficinas para la Policía Municipal, con un espacio operativo de 150 m<sup>2</sup>. Asimismo, también incluye un espacio de 99 m<sup>2</sup> destinado al Geoparque. Se espera que el avance de las obras continúe según lo previsto y que las obras concluyan durante el primer trimestre de 2025.



### Bide-segurtasuna hobetzeko matrikulak irakurtzeko kamerak, Ifar eta Lersundi kaleetan

Debako Udalak matrikulak irakurtzeko kamerak jarri ditu Lersundi kaleko hasiera zein amaieran, eta baita Ifar kaleko sarreran ere. Sistemak ibilgailuen sarrera-irteerak erregistratuko ditu, eta, horri esker, eremu horietan egiten diren sartu-irtenak hobeto kudeatu ahal izango dira. Neurri horren bidez, ibilgailuentzako itxita dauden espazio publikoak baimendu gabeko orduetan autoz betetzea saihestu nahi da, oinezkoen segurtasunari lehentasuna emanez eta oinezkoentzako guneen erabilera egokia mantenduz.





EAJ-PNVtik lehen urte eta erdi honen balorazio positiboa egiten dugu. Debarrek herriaren norabidean eta kudeaketan aldaketaren aldeko apustua egin zuten, eta aldaketa horren oinarriak finkatzen dihardugu lanean. Denbora honetan, herriak ezinbestekoak dituen proiektuak eta ekimenak abian jartzeko pausoak eman ditugu.

Debak hobera egin dezan, administrazio eta erakunde desberdinekin elkarlanean aritzeko gaitasuna ezinbestekoa da. Horregatik, udaletxera iritsi eta lehen egunetik dihardugu lanean trenen maiztasuna handitzeko, etxebizitza gehiago eraiki ahal izateko, zaintza ekosistema abian jartzeko... Egindako lanaren fruituak herriaren eta debarron bizitzan izango dituen onurak laister ikusko ditugula ziur gaude.

Herri mailako elkarlanari dagokionez eta adostasunetara iristeko dugun nahiaren adibide, bereziki azpimarragarriak izan dira Debako EAJk Orain Debarekin adostutako legealdi akordioa eta EH Bilduk 2025eko gure aurrekontu proposamenei emandako aldeko bozka.

Deba bizitzeko herririk onena bilakatzea, Debako EAJ-PNVren lan onari esker baino ez da posible izango, gure herritarren ongizatea eta etorkizuna ardatz hartuta.



Legealdi honi hasiera emateko, erabakigarriak izan gara alkate-tza eta udal-gobernua aldatzeko. Herriko sektore oso garrantzitsu batek nahi zuen hori, izan ere, lau urtetan Udalak ez zuen inolako entitate-proiekturik jorratu.

EAJ-PNVrekin gobernua osatu genuen, geldituta zeuden interes publikoko proiektuak abian jartzeko, hala nola Elizburuko etxebizitza tasatuak edo hilerria lekuz aldatzea Amillagako proiektua garatzeko.

Lanean ari gara Osion gazteen eta beste kolektibo sozial batzuen beharrei erantzungo dieten etxebizitzak eraikitzeko eta kiroldegien ondoan adinekoentzako ekipamendu bat eraikitzeko. Aldi berean, Arbil Elkarte Sozialarekin, elkartearen jarduerak biziberritu ditugu.

Turismo iraunkorraren aldeko apustua egiten dugu, Debaren etorkizunerako sektore estrategikoa.

Hori guztia,debar guztientzako herri hobea posible egiteko .

## ehbildu



Agintaldi honen hasieratik urte t'erdi igaro denean helduko da lehendabiziko Debarberi gure etxeetara. Lehenago ere zer komunikatua bazegoela uste badugu ere, pozez hartu dugu udal gobernua aldizkariaren argitalpenarekin jarraitzea, izan ere, herritarrak udalaren jardunaz informatzeko bide eraginkorra dela uste dugu.

Udalean ordezkartza zuten alderdiei euren iritzia emateko tartea sortu genuen aurreko agintaldian, eta gobernutik kanpo zeuden alderdiek begi onez ikusi zuten ekimena. Oraingoan gure iritzia ematen jarraitzeko aukera izango dugu, hala ere, 150 hitzetara mugatu zaigu aldikarian izango dugun tartea. Hau kontuan izanik, herritarrekin komunikatzeko ditugun bitartekoak garatzen jarraitu beharko dugu gure mezua udalerriko txoko guztietara heldu dadin.

Gure politika egiteko ereduari jarraiki, pasa den abenduan udal aurrekontuaren inguruko akordioa lortu genuen EAJ eta Orain Debarekin. Herritarren ongizatea helburu, aukera onena dela sinetsita gaude. Akordioan jasotakoak bete daitezten lanean jarraituko dugu datozen hilabeteetan, eta zuei, herritarrei, honen guztiaren berri emango dizuegu. Kalean ikusiko dugu elkar.



**ADI! Proposamenek Debako erdigunera mugatu behar dute (Itziar, Lastur eta gainerako auzoak kanpo).**

*AVISO: Las propuestas deben centrarse en el núcleo urbano de Deba (exceptuando Itziar, Lastur y demás barrios rurales).*

**Generoa • Género:** .....

**Adina • Edad:** .....

**Zein da zure proposamena? • ¿Cuál es tu propuesta?**

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**Arrazoitu ezazu • Detalla tu propuesta**

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

**Informazio osagarria (aukerakoa) • Información adicional (opcional):**

**Teléfonoa:** .....

**Email-a:** .....



Jakinarazten zaizu ematen dizkiguzun datuak xede bakarrarekin erabiliko direla: Debako Udalaren erabakitze prozesuetan parte hartu ahal izatea, eta prozesu horietan emandako erantzunen azterketa eta balorazioa egitea. Zure datu pertsonalak dagokion udal erroldan egiaztatu behar izango balira, hori egiteko baimena ematen diozu Debako Udalari. Datu horiek ez zaizkio inola ere hirugarren bati utziko, eta konfidentzialtasun osoz tratatuko dira. Gainera, lege ezarritako segurtasun neurrien babesean gordeko dira. Baimena baliogabetu dezakezu, eta zure datu pertsonalak eskuratu, zuzendu eta deuseztatzeko eta horiei aurka egiteko eskubideak egikaritu. Horretarako, mezu ele troniko bat bidali behar duzu helbide honetara: <mailto:aurrekontupartehartzailleakdeba@gmail.com>. Mezuarekin batera zure nortasuna egiaztatzeko agiri baten kopia bidali behar duzu.

*Se le informa que los datos que usted nos facilita serán exclusivamente utilizados con la finalidad de permitir su colaboración en el proceso de toma de decisiones del Ayuntamiento de Deba, así como para realizar estudios y valoración de sus respuestas en este proceso, en este ejercicio y en ejercicios sucesivos. Autoriza al Ayuntamiento de Deba a verificar sus datos personales con el Padrón Municipal, en el caso de que sea necesario. Estos datos no serán en ningún caso objeto de cesión a terceros y serán tratados de manera confidencial y conservados bajo las medidas de seguridad legalmente establecidas. Puede revocar su consentimiento y ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, respecto de sus datos personales dirigiendo un correo electrónico a [aurrekontupartehartzailleakdeba@gmail.com](mailto:aurrekontupartehartzailleakdeba@gmail.com), debiendo adjuntar copia de un documento acreditativo de su identidad.*